

Kaixo guztioi!

Lehenik eta behin, zorionak eman nahi dizkizuet zuen konpromisoagatik eta santurtziar guztiok azken hilabete hauetan izan dugun portaera onagatik. Egun zailak izan dira, baina elkarrekin egoerari aurre egitea lortu dugu, eta, gure ahaleginari esker, dena betiko moduan izateko gertu gaude.

Aurten, Santurtziko Udalak, Agenda 21eko taldearen laguntzarekin, ingurumen-lehiaketa beste modu batera planteatu du. Gure etxeetan ohi baino denbora gehiago eman dugu, eta horregatik, lehiaketaren gai nagusia "Mundua nire leihotik" izan da, bizi eta sentitzen ari zareten egoerak hobeto ezagutzeko.

Eskerrak eman nahi dizkizuet zuen parte hartzeagatik eta egindako esfortzuagatik.

Hainbat kategoriatan egin dituzuen lanak bikainak izan dira. Artista hutsak zarete!

Idazlanen artean, gehien gustatu zaizkidan esaldietako batzuk azpimarratu nahi nituzke, bai mezu baikorregatik, bai ikaskuntzagatik, bai gure herri ederrari eman diozuen maitasunagatik ere:

*"Serantes mendia hor dago nire aurrean. Badirudi gure zaintzailea" (Ander, LH5).*

*"Al mirar por la ventana todo lo que veo me transmite felicidad: los campos verdes, el agua limpia, el cielo azul, los pájaros que revolotean, los animales... Voy a aprovechar una parte de todo este tiempo que nos queda para seguir apreciando la naturaleza" (Uxue, LH6).*

*"Orain konturatuko gara ze garrantzitsua den natura bizitzarako. Natura zaindu behar dugu, berak gu ere zaintzeko. Bizi nahi baduzu, natura zaindu behar duzu!" (Jone, LH5).*

*"Debemos cuidar más el medioambiente y las especies vivas. Si esta mala experiencia nos sirve para cambiar de actitud, por lo menos hemos sacado algo positivo." (Itxaso, DBH3)*

*"Gustatuko litzaidake kuarentena amaitzea eta gauza asko egitea familia eta lagunekin: belarrean etzanda egotea, hondartzara eta mendira joatea..." (Jon, LH5)*

*"Cierro mi ventana y mañana empezará otro precioso día" (Siena, LH5).*

*"Santurtziko portua eta ingurua garbiago daude. Egoera horrela jarraitzeko, kontzientzia behar da, gure portua, herriarentzat oso garrantzitsua delako" (Naia, DBH1).*

*"Cuando nos asomábamos a la ventana, el aire que respirábamos era más puro y fresco de lo normal, apenas había contaminación" (Nahia, DBH1).*

*"La gente nos empezamos a unir los unos a los otros, los balcones se empezaron a llenar de mensajes positivos y empezamos a conocer más a nuestros vecinos. Este confinamiento nos ha servido para saber, que realmente con menos, se puede vivir mejor" (Ibai, DBH3).*

Datorren urtean aurtengo gogo eta ilusio berarekin parte hartzea espero dugu. Ziur nago berriro zuen lana ikusiko dugula. Zorionak eginako lanengatik.

Laster ikusiko dugu elkar. Besarkada,

Aintzane Urkijo Sagredo